

Erasunek eta
Aranaldek, 66,5
kilo gehiago

'Urki' eta Mitxelena
utzi zituzten atzean ▶ 5



Harpidedunei banatua ▶ Asteazkena ▶ 2005-09-28 ▶ III. urtea ▶ 696. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Olazabalentzat eta Iruretarentzat izan da I. Leitza Pilota Txapelketa

MAILAK ▶ Helduen mailan jantzi dute txapela;
denera, sei mailetako finalak jokatu ziren igandean

«**GUSTURA**» ▶ Erruz bete ziren Amazabaleko
harmailak; «pozik» dira Aurrera pilota eskolakoak ▶ 7



Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxea (sariak banatu zituzten), parte-hartzaileak eta antolatzaileak. J. ASTIBIA

TOLOSA ▶

Bizikletaren erabilera sustatzeko programa aurkeztu dute

San Frantziskoren zatiko bidegorrian
beste pasabide bat ireki dute ▶ 3



Oinezkoen pasabide berria. N. L.

VILLABONA ▶

Fleming-erako bideko «segurtasunik eza», gurasoen kexa

Kezkaturik da Guraso Elkartea; lanak
laster hasiko direla dio Udalak ▶ 4



IBARRA ▶

Hasiera kaskarra eman dio taldeak denboraldiari

1-7 galdu du Ibarrek
Logroñoren aurka,
Ligako lehenean ▶ 6

Entrenamenduan. I. TERRADILLOS

www.sala71.com SABONERRI

irailak 30 ostirala

EMPLEAN KATZEN

Ken zazpi + Gari

31

Irekiera 22:00etan
Aurretik 10 € • Lehian 15 €

EMAITZAK ETA SAILKAPENAK ▶

ARETO FUTBOLA

Emakumezkoen Ohorezko Maila.

Cordoba-Hegoalde Tolosa	1-1
Sailkapena ▶	
1. Navalcarnero	3 puntu
2. Mostoles	3 puntu
3. Teldeporivo	3 puntu
4. Fuenlabrada	3 puntu
5. UCAM Murcia	3 puntu
6. Gironella	3 puntu
7. Femesala Elche	1 puntu
8. Zaragoza 2002	1 puntu
9. Hegoalde Tolosa	1 puntu
10. Cordoba	1 puntu
11. Rioja Diamante	0 puntu
12. Valencia	0 puntu
13. Ourense	0 puntu
14. Arturo Eyres	0 puntu
15. Majadahonda	0 puntu
16. Soto del Real	0 puntu

Espainiako Liga A.

Lauburu Ibarra-Logroño	1-7
Sailkapena ▶	
1. Logroño	3 puntu
2. D. Cerverano	3 puntu
3. Xota	3 puntu
4. Atenea	3 puntu
5. Sestao	3 puntu
6. Soloarte	3 puntu
7. Gazte Berriak	1 puntu
8. Muredas Urrutia	1 puntu

9. Arnedo	0 puntu
10. Albelda	0 puntu
11. Carniceria Saenz	0 puntu
12. Jarrilleros	0 puntu
13. Sasikoa	0 puntu
14. Ultzama	0 puntu
15. Zuzenbide	0 puntu
16. Lauburu Ibarra	0 puntu

FUTBOLA

Hirugarren Maila.

Laudio Sall-Tolosa	1-1
Sailkapena ▶	
1. Beasain	12 puntu
2. Sestao	11 puntu
3. Laudio Sall.	9 puntu
4. Elgoibar	9 puntu
5. UPV-EHU	9 puntu
6. Gernika	8 puntu
7. Tolosa	7 puntu
8. Zamudio	7 puntu
9. Amorebieta	7 puntu
10. San Pedro	7 puntu
11. Arenas	7 puntu
12. Aurrera Vitoria	6 puntu
13. Eibar	6 puntu
14. Aurrera O.	6 puntu
15. Baskonia	6 puntu
16. Santurtzi	5 puntu
17. Lagun Onak	4 puntu
18. Indaubu	3 puntu

19. Gebro	2 puntu
20. Salvatierra	1 puntu

Lurrealdeko Lehen Maila.

Danena-Beti Ona	2-4
Sailkapena ▶	
1. Dunboa-Eguzki	6 puntu
2. Usurbil	6 puntu
3. Martufene	6 puntu
4. Euskalduna	6 puntu
5. Behobia	4 puntu
6. Inbr. Danak	3 puntu
7. Oiartzun	3 puntu
8. Beti Ona	3 puntu
9. Hondarribia B	3 puntu
10. Gure Txokoa	2 puntu
11. Ostadar	1 puntu
12. Roteta	1 puntu
13. Urnieta	1 puntu
14. Danena	0 puntu
15. Marinho	0 puntu
16. Lengokoa	0 puntu

Lurrealdeko Bigarren Maila.

Ordizia B - Tolosa B	1-2
Amaroz-Akular	2-0
Sailkapena ▶	
1. Tolosa B	6 puntu
2. La Salle	4 puntu
3. Amaro	4 puntu
4. Lasarte Oria	3 puntu
5. Inboure	3 puntu
6. Ordizia B	1 puntu

7. Lazkao	1 puntu
8. Munibe	0 puntu
9. Axular	0 puntu

Jubenilen Euskal Liga.

Tolosa-Arenas	3-0
Sailkapena ▶	
1. Athletic	9 puntu
2. Real Sociedad B	7 puntu
3. Cultural	7 puntu
4. Elbar	6 puntu
5. Antiguoko	6 puntu
6. Gurutzeta	6 puntu
7. Tolosa	4 puntu
8. Barakaldo	4 puntu
9. Danok Bat	4 puntu
10. Hernani	4 puntu
11. Retuerto	3 puntu
12. Arenas	3 puntu
13. Romo	3 puntu
14. San Ignacio	1 puntu
15. Indartsu	1 puntu
16. Santxub	0 puntu

FUTBOL 7

1. maila A.

Ibarrako GA-Emengo artekaritza	2-0
Continental industrias-Kroms	3-3
Sailkapena ▶	
1. Bataplan	6 puntu
2. Zuma GH	6 puntu
3. La Kabutzia	4 puntu

4. Knauf-Decoracion Nuñez	3 puntu
5. Saniketa	3 puntu
6. Jalgi kafe antzokia	3 puntu
7. Easo Motor	3 puntu
8. Pub Oasis	3 puntu

9. Ibarrako Gazte Asanblada

3 puntu	
10. Euskalduna-San Miguel	3 puntu
11. Kroms	1 puntu
12. Continental industrias	1 puntu
13. B. Ignacio-Hondarribia	1 puntu
14. Zibibo dance club	0 puntu
15. Emengo artekaritza	0 puntu
3. maila D.	
PC Byte Inf.-Caravanas Tolosa	1-4
Sailkapena ▶	
1. Mendi Kafe-Rock	6 puntu
2. Pescaderia Urkax	6 puntu
3. Viva Imob-GR In The Line	6 puntu
4. Academia Jarratu	4 puntu
5. Bodega del Lagar	4 puntu
6. Sagardotegi Akelenea	4 puntu
7. Caravanas Tolosa	3 puntu
8. Ibas-Lur taberna	3 puntu
9. Garbera sagardotegia	3 puntu
10. Flumäher	3 puntu
11. PC Byte Informatica	3 puntu
12. Redcom	1 puntu
13. Research systems	0 puntu
14. enterat.com	0 puntu
15. B United	0 puntu
16. Metalicas Oleta	-3 puntu

PILOTA

Kadeteen 2. maila.

Aurrera-Saiaz-Añorga	12-22
(Maitin de la Sotilla-Ander Dorronsoro)	

Kadeteen 1. maila.

Aurrera-Saiaz-Andazpe	11-22
(Mikel Lasala-Luis Angel Zubiri)	
Jubenilen 1. maila.	
Aurrera-Saiaz-Arrasateko	22-2
(Ariz Mugika)	

Xabier Telletxea-Koldo Galarraga (atsedena)	
---	--

Jubenilen 2. maila.

Aurrera-Saiaz-Urnieta	22-3
(Aratz Irazusta-Iñaki Errazkin)	

Seniorren 1. maila.

Real Sociedad-Aurrera-Saiaz	8-22
(Garikoitz Galarraga)	

Aretabaleta-Aurrera-Saiaz	22-17
(Mikel Bellosa-Eneko Galarraga)	

Seniorren 3. maila.

Aurrera-Saiaz 1-Lazkao 1	22-5
(Ugaitz Renobales-Ruben Zapirain)	

Aurrera-Saiaz 2- Lazkao 2	22-6
(Mikel Olaechea-Iker Uhartre)	

Seniorren 2. maila.

Aurrera-Saiaz 1-Aretabaleta	22-8
(Unai Aspe-Ion Orbegozo)	
Aurrera-Saiaz 2- Anafatsuna	22-11
(Igor Aranzabe-Ioseba Senperena)	

FUTBOLA ▶

Galdu gabe, baina irabazi ezinik segitzen du Tolosa CF-k

Laudioren aurka banako berdinketa lortu du asteburuan; bikain jardun du berriro Apezetxea atezainak Ellakurin

IRATXE ETXEBESTE

Tolosa CF-k ez du partidurik galdu oraingoz, baina Hirugarren Mailara pasatu zenetik ez du neurketa bakar bat ere irabaztea lortu; orain arteko norgehiagoka guztiak berdinketarekin amaitu dituzte urdinek etxean nahiz kanpoan, eta halaxe egin du asteburuan ere:

Laudio taldearen aurkako partidua banako berdinketarekin bukatu zuten Ellakurin Jose Manuel Luluagaren eta Kepa Mendizabalen mutilek.

Hori ez litzateke hala izango ordea, urdinen atezain Apezetxeak egindako lan bikaina burutu izan ez balu. Maila ona ari da erakusten azkenaldian, eta Tolosak hainbat norgehiagoka



Tolosa CF-k ez du oraindik partidurik irabazi; galdu ere ez. IMANOL GARCIA

ez galtzea ekarri du bere lanak kasu askotan.

Mendizabalek eta Luluagak gainerako jokalarien lana ere goraiatu nahi izan zuten partidua bukatu eta berehala: «Gisa honetako talde asko aurkituko ditugu denboraldi osoan zehar, batez ere Bizkaian». Beren taldeak egindako ahaleginari buruz zioten («lan txokuna») burutu zutela, baina gol aukera gutxi izan zituztela, «tamalez, aurkaria talde sendoa zelako». Etxean ari ziren, gaine-

ra, eta horrek mesede egin zion Audiokoei. Jaurtiketa luzeen bidez aritu ziren neurketa osoan, eta halaxe sartu zuten partiduko lehen gola 31. minutuan.

Oruek ez zuten jokoan sartzarik lortu, eta hori zinez nabaritu zuten tolosarrek. Reguillaga esna zegoen, baina, eta Unairekin batera egindako jokaldi bikainari Crespok eman zion bukaera jarraian, buruz, aurkariaren saraan neurketako bigarren gola sartuz. Berdinketa adierazten zuten markagailuak.

AURKARI GOGORRAK

«Gisa honetako talde asko aurkituko ditugu denboraldi osoan, batez ere Bizkaian», zioten entrenatzaileek

Bigarren zatian etxekoek izan zuten baloia iren jabetza ia osoa lehen hogei minutuetan, eta erakustaldi bikaina egin zuten harmailetan ziren jarraitzaileen gozamenarako. Urdinen arduradunek aldaketa ugari egin zituzten hasierako hamaikakoan, eta, adibidez, 50. minutuan Aierbe ateratu zuten zelaira min hartu zuten Romeroren orde. Agirrezabalak ordezkatu zuen Azpiroz, eta Aimar defentsa erdira pasatu zen; Pablo, berriz, zelai erdira, eta horrek erraztu egin zuen defentsen lana. Ekaitz ere sartu zen jokatzera, eta arriskua handitu egin zen handik aurrera. Gol aukerak ugartu egin ziren orduan, baina bat bera ere ez zen sare artean geratu.

litza txokoa lagunen

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketatutako **BETI ALAI jatetxean 4 lagunentzako otordu eder baten irabazlea: MARIJO MURILLO ARIZMENDI (ALEGIA)**



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

MUGIKORTASUNA ▶

Txirrindaren sustapenerako programa aurkeztu dute

Gea 21 taldeak eginiko azterketaren ondorioz osatutako proiektua izango da

NOELIA LATABURU

Gea 21 Azterketa eta Alternatibatarako Taldeak, Tolosako Udalaren laguntzarekin, Tolosako bizikletaren plana aurkeztu zuen iragan astean, Mugikortasun Iraunkorraren Astearen harira. Bertan herriko bidegorri sarea eta txirrindaren sustapenerako programa azaldu zuten, Tolosarentzat egokien moldatuko litzatekeena, hain zuzen ere. Planaren helburuak, plana bera eta ateratako ondorioak mahaigainaratu zituen azterketa taldeak.

Bidegorri sarea osatzerakoan jomuga hauek ezarri dituzte: herrian barrera kutsadura eta zarata murriztea, mugikortasunetik eratorritako kontsumo energetikoa murriztea, hiritarren osasuna hobetzea, espazio publikoa elkarbizitzeko gune bezala berreskuratzea, zirkulazioaren arriskua murriztea, eta haurren eta beste sektore sozialen mugitzeko autonomia handitzea. Mugikortasunarekin eta bizikletarekin lotutako helburuak ere aipatu zituzten, txirrindaren erabilera garraibide gisa normalizatzeko, ibilbide motzetan (7 kilometrotatik behera) autotik txirrindarako aldatzea lortzea, txirrindan loturak bermatzea lantoki, erakargune eta etxebizitzaren artean eta bizikletei zuzenduriko neurriak erositasauna eta segurtasuna hobetzeko aprobetxatzea. Halaber, bidegorri mota ezberdinak eraikitzea proposatu zuten. Horrela, txirrindentzako pista bat, espa-



Asko dira bizikletaren aldeko apustua egiten dutenak garraio modu bezala. HITZA

loi bat, oinezkoen eta txirrindaren arteko koexistentzia, ibilbide mistoa eta babestutako bidegorria. Horretarako, 11,1 kilometro luzerako sarea eraikiko dute. Gea 21-ek proposaturiko plana bizikleta pixkanaka Tolosako mugikortasunarekin txertatzeko lanabesa baino ez dela azaldu dute. Hemendik aurrera, «kudeaketa beharko da proiektua aurrera eramanez ahal izateko».

Udalerrientzako onurak: auto pilaketak gutxitzea, espazioaren aurreztea, hiriko kalitatearen hobetzea, mantenimendu kostuen gutxitzea... Enpresentzat eta komertzioentzat ere bidegorriak onurak baino ez dituela ekarriko iragarri dute. Arrazoiak badira, beraz, proiektu honen alde egiteko.



Bidegorriko pasabide berria

Makina bat eztabaida piztu ostean, azkenean Hirukide ikastetxe parean dagoen bidegorriari (San Frantziskon) pasabidea ireki dute, ikasleek arazorik eta arriskurik gabe pasatu ahal izateko. N.L.

GIZARTEA ▶

Yoga elkartearen hitzaldiak, gaur eta bihar

Yoga elkarteak hainbat hitzaldi antolatuta ditu gaur eta bihar. Hitzordua 22:00etan izango da, Kultur Etxean.

GIZARTEA ▶

San Esteban pilota elkartearen jaia, larunbatean

San Esteban pilota elkarteak bere jai eguna izango du urriaren 1ean, larunbatean. 19:00etan Sakramentinoetan bazkide hildakoen omenezko meza izango da; ondoren, afari legea egingo dute elkartean, eta urtean zehar jubilatutako direnei omenaldia egingo diete. Ramon Egiguren Txixan-i, 22 urtetan elkarteko entrenatzaile eta delegatu izan den bazkideari, eskerrik eman eta omenaldia egingo diote. Hau guztia alaitzeko, auzoan zehar kalejira egingo dute txarangarekin.

GIZARTEA ▶

Eskoletako Foroak alkateari kexua azaldu dio

Eskoletako Foroak eskutitza bidali dio Tolosako alkateari eta hurrengo bilerara joateko gonbidapena ere luzatu dio. Izan ere, foroko partaideen esanetan, ez dute ulertzen Pablo Gorosabel kaleko bidegorriaren zatia kentzearen erabaki azkarraren zergatia, eta ezagutu nahi dute zein izango den alternatiba. Orain arte parte hartzea eskatu eta euren iritzia aintzat hartu ez dutela salatzen dute.

iragarki laburrak ▶

BASABI Inmobiliaria

Pablo Gorosabel, 40
1. planta - 7. hellegoa
20480 TOLOSA
Telf. eta Faxa: 943 65 55 87
mag.: 669 368 994

Aduna. 608m2ko pabilioia alokairuan, garabi zubiarekin, bulegoak bertan.
Albiztur. Berritzeko dagoen baserria salgai, banandua, hiru solairukoa, solairu bakoitzak 200 m2-koa. 35.000 m2 dituen lursail propioarekin.
Anoeta. Estreintzeko dagoen duplex ebebizitza salgai. 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukalde, terraza eta garajea aukeran.
Asteasu. 1.050 m2-ko bi solairuko eta 250 m2-ko solairu artean duen pabilioia salgai edo alokeran. Mota guztiak tresnaz eta hobekuntzekin hornitua.
Beasain. 45 m2 erabilgarriko

etxebizitza eta lokal komertziala salgai.
Berrobi. 50 m2-ko etxebizitza, salgai, planta baxuan. Berritua.
Berastegi. 100 m2-ko bi solairuko borda salgai, moldatu beharrean dagoena, 75.000 m2 dituen lur-saila, 35 eta 50 urte dituzten laritz pinuarekin.
Bidanía. Azken bi etxe abikiak salgai, 160 m2 dagoeneko eraikiak daude.
Donostia. Saguesen, 70 m2-ko duplexa salgai, berritua, igogailuarekin eta Groseko hondartzara ikuspegiarekin.
Lasarte. Hirugarren solairuan, 65 m2 erabilgarriko etxebizitza salgai

Oztaran kalean. Kanpoaldera ikuspegi.
Lizartza. Eraikuntza berrikoak diren eta 350 m2-tik hasita, 14.000 m2 pabilioi salgai.
Segura. Eraikuntza prozesuan dauden 14 etxe abiki salgai, 297.500 eurotik aurrera.
Tolosa. Santa Klara kalean, 90 m2 dituen etxebizitza berritua salgai. Atzealdean baratza eta txabola propioarekin.
Tolosa. Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskinen, 110 m2-ko etxebizitza salgai. Kanpoaldera eta eguzkitsua. Igogailuarekin. Berritzeko premia.
Tolosa. Belate pasealekua, 4.

solairuko etxebizitza, 70 m2-koa. Kanpoaldera, igogailua eta trastelekuarekin.
Tolosa. Apattarrekian, lehenengo solairuan etxebizitza eta bigarren solairuan duplex-a. Berritua. Garajea eta lur-saila propioak ditu.
Tolosa. Pablo Gorosabel, eraikuntza berriko azken apartamendua, 65 m2 erabilgarri.
Tolosa. Zumalakarregi kalean, hirugarren solairuan berriturik dauden bi etxebizitza daude salgai.
Tolosa. Etxebizitza gehiago ditugu aukeran alokairuan. Informazio pertsonalizatua lortzeko, gure bulegoetan.

VILLABONA ▶ GIZARTEA

Fleming-eko ikasleek eskolarako bidean «ez dute segurtasunik»

Gurasoak kezkatuak, haurrek ibilgailu artean ibili behar dutelako; «espaloien obrak laster hasiko dira», dio Udalak



Aurreko ikasturteko azken hiruhilabetearen, ur depositoaren obrak zirela eta, ohiko ibilgailuek gain, ikasleek hondeagailuak eta obren beste ibilgailuak ere topatu zituzten eskolarako bidean. HITZA

IMANOL GARCIA

Villabonako Arratzain auzoan dagoen Fleming eskola publiko Guraso Elkartearen ardura da gaur haurrek eskolara bidean duten «segurtasun gabeziagatik», HITZARI adierazi diotenez. «Eskola herrigunetik kanpora dago, eta bertaraino igotzeko ez dago espaloirik. Autobusak eta autoak igaro-

tzen dira eta errepidea oso estua da. Horregatik, haurrak babesik gabe igotzen dira», azaldu dute Guraso Elkarteak. «Horrelakoetan tamalgarriz izaten da, baina askotan gauzak egiten dira ezbeharrak gertatzen direnean, eta hori ekidin nahi dugu», gaineratu dute. «Hiru urte daramatzagu gutxienez gai honekin, baina administrazioek ez digute ir-

tenbiderik eman», diote gurasoek.

Fleming eskola bi eraikinetan bananduta dago. Haur Hezkuntzako gelak Arroa auzoko eraikinean daude, eta Lehen Hezkuntzakoak Arratzaingoan, Erniohea Institutuarekin batera. «Bi seme baldin badituzu, eta billabonatarrentzat ez dagoenez autobusik gora igotzeko, zaharrenak bakarrik igo

behar izaten du». Guraso batek bere esperientzia azaldu du: «Nik hiru seme-alaba ditut eta bizilagunekin antolatu beharra izaten dut haur bat gora eramateko, gero etxera bueltatu eta bestea Arroara eramateko. Eta nirea ez da kasu bakarra».

Autobusa izatearen afera Hezkuntza sailarekin hitz egin dute gurasoek. Arauek diotenez, herritik bi kilometro baino gehiagoko tartea izan beharra dago Hezkuntzak autobusa jartzeko. Arratzaingo eskola kilometro batera dago eta, beraz, billabonatarrek ez dute autobusik. «LH 1eko ikasleek dute autobusa. Hortik gora ez dago zerbitzu hori», diote gurasoek.

Arartekoari ere gutun bat idatzi diote gurasoek arazoaren inguruan. «Udalak, dirudienez, gaiaren ardura hartu zuen, eta plano batzuk egin zituen espaloia nondik joango zen agertuz. Baina dirua ez dagoela aitzakian, INEMek bulzatutako eplegurako programa baten bitartez egiteko aukeraren zain daudela azaldu ziguten. Eta dagoeneko ikasturtea marxtan da, eta oraindik ez dira hasi ezer egiten».

Haurrak ikastetxera iristeko segurtasun arazoak areagotu egin ziren aurreko ikasturtearen azken hiruhilabetearen. Foru Aldundiak obra batzuk hasi zituen Arratzaingo ur deposituan, eta horrek ibilgailuen mugimendua handitu zuen. Ohiko auto eta autobusez gain, obretako ibilgailuak topatzen zituzten ikasleek bidean.

Egindako gestio guztien bitartez gauza batzuk lortu dituzte. Adibidez, zebra-bide bat marraztea, eliza ondotik doan oinezkoen bideak errepidearekin bat egiten duen lekuan. Bestetik, autoek ez aparkatzea errepidean zehar, haurrak bide errira ez ateratzeko.

Espaloia, aurki

Bakartxo Tejeria Villabonako alkateak HITZARI adierazi dienez, «laster hastekoak dira espaloia egiteko obrak. Udalaren aldetik borrokatu gara enplegua sustatzeko programaren baitan egiten den ikastaroaren praktikan obra hori egiteko».

Aurrekontu falta dela eta, Udalak INEMen eta Tolosaldea Garatzen-en artean antolatzen den eraikuntza alorreko ikastaroaren bitartez egitearen beharra ikusten zuen. Eskualdeko garapen agentziatik HITZARI azaldu diotenez, ikastaroa urriaren 3an hasiko da. «Ikasleek garatuko dituzten obretako bat Arratzaingo espaloiarena izango da, hain zuzen ere», adierazi dute Tolosaldea Garatzen-eko ordezkariak.

ZIZURKIL ▶

Landaturismoa lantzeko ikastaroa Fraisoron

Urriaren 3an hasiko da, eta ostiral honetan amaituko da izena emateko epea

ERREDAKZIOA

Zizurkilén dagoen Mendikoi Fraisoro Nekazaritza Eskolak Nekazalturismo V. Ikastaroa antolatu du. Ikastaroa urriaren 3ean hasi eta abendurarte iraungo du, eta klaseak 15:00etatik 19:00-etara emango dira. Izena emateko azken eguna etzi izango da. Ikastaroaren helburua turismorako ostaluen titular izango direnei prestakuntza egokia ematea da eta, bestetik, gaur egungo titularreri etengabeko prestakuntza ematea.

Ikastaro hau nekazaritza lortzen dituzten diru-sarrirez gain, zerbitzuen sektoreko jardueren bidez beste sarrera batzuk lortu nahi dituzten langileentzat (nekazari entzaintzat eta abeltzaintzat) zuzendua dago. Bertan parte har dezakete landaturismo jarduerak bat ireki edo zuzendu nahi duten landa eremuetako gazteak; nekazalturismoen eta landetxeen titularrak; beren nekazaritza-erentak zerbitzuen sektoreko jarduerekin osatu nahi dituzten nekazariak eta abeltzainak.

ANOETA ▶

Adinekoen sexualitateari buruzko hitzaldia

ERREDAKZIOA

Kutxak antolatuta, *Sexualitatea adinekoen pertsonengan* hitzaldia izango dute gaur arratsaldean Anoetako Alkartasuna Biltokian. Ekintza honekin adineko pertsonen sexualitatea, ongizatea eta orohar bizipozaren garrantzia aztertuko dituzte. Ana Atienza izango da hizlaria, eta hitzordua 18:30ean izango da. Ekitaldiaren ondoren meriendatxoa emango dute Biltokian.

HERNANI OKINDEGIA

s u l a b e
ogi egin berriena

Tel.: 943 55 40 50 • HERNANI

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Irudietan. II. Hitza Argazki Lehiaketaren zortzi finalistak aukeratu ditu epaimahaiak. Orain irakurleen txanda da, zuek aukeratuko baituzue hiru irabazleak. Begira itzazu zortzi argazki finalistak webgunean, *Irudietan* sailean, eta bozkatu zuri gehien gustatzen zaizuna.

SEGA ▶

Erasun eta Aranalde irabazle, 66,5 belar kilo gehiago moztuta

Mitxelena eta 'Urki'-ren aurka aritu ziren igandean; ikusle gutxi bildu arren, pozik dira modu berria erakutsi dutelako



Erasun eta Aranalde, erreleboetan, igandean. JUAN CARLOS RUIZ / A. PRESS

MARTA SAN SEBASTIAN

Juan Manuel Erasunek eta Mikel Aranaldek osatutako bikoteak Bixente Mitxelena eta Jexux Mari Ormaetxea gailendu zituzten pasa den igandeko sega proban. Laurak ere Euskadiko Segalari Txapelketako finalistak dira. Oraingoan, aldiz, binaka jardun zuten, ohikoa ez den bezala, eta horrek ikusgarritasun berezia eman zion probari.

Hernanin izan zen saioa, Galarreta pilotalekuaren ondoan dagoen Jauregi jatetxearen belardietan. Txanda librean aritu ziren segalari bikoteak, eta erreleboak izan ziren saioa erakargarri bihurtu zutenak. Erasunen eta Aranalderen txandak luzeagoak izan ziren Mitxelenarenak eta Urki-renak baino, eta lana egiteko modu honek garaipena eman zien.

Ordubete inguruko lanaren ondoren oso parekatuta geratu ziren bi bikoteak. Azkenean, Erasunek eta Aranaldek 66,5 belar kilo gehiago mozteko lortu zuten. Hala ere, hauek hiru zigor ere jaso zituzten, eta 60 kilo kendu zizkieten; beste bikoteari, aldiz, 40 kilo kendu zizkieten bi zigor jaso zituztelako. Belarra luze eta sega probarako oso egoera onean zegoen.

Oso ikusle gutxi

Probaren berezitasuna ikusirik, ikusle asko bertaratzea espero zuten, baina, azkenean, 100 ikusle pasatxo besterik ez ziren bildu Jauregi Jatetxeko belardietara. Goizean euri pixka bat egin zuen eta honek eragina izan zuen jendea animatzerako orduan. Juan Manuel Erasun zizurkildarraren hitzetan, «ikusleen erantzuna eskasa izan zen zen, beharbada, gutxi iragarri den proba izan delako; eta modu honetako saioak sustapena behar dute».

Hala ere, aurrerantzean, eta denbora pixka bat pasatu ondoren, errepikatzekotan dira. Lau segalariak «gustura» jardun zuten belarra moztzen eta, honez gain, pozik ageri dira segan aritzeko modu berri bat erakutsi zutelako.



Babestu maiteen dituzunak.

Zure etxea da zure bizitzako proiekturik garrantzitsuenetako bat. Egunez egun eraikitzen duzu, helburu bakar batez: Maiteen duzun pertsonak ahalik eta bizi-mailarik onena izan dezan. Eta horrek ez du ustekabekoren batengatik aldatu behar.

Kutxa Bizitza-Asegurua da lortzeko hainbeste ahalegintzen zaren egonkortasun hori bermatzeko biderik onena. Gertatzen dena gertatzen dela, maiteen duzun pertsona hori beti babestuta egon dadin.

KUTXA BIZITZA-ASEGURUA

Zure bizitzaren ondoren bizitza dagoelako.

Biharko Vida y Pensiones, S.A.rekin kontratatutako Kutxa Bizitza-Asegurua. **kutxa** da bere erregistroan 02 zk.az ageri den aseguru agentziaren sozietatea.

Modalitate eta deskontuei buruzko argibideak jasotzeko gure bulegoetara, **901 333 555** zenbakira deituz eta **www.kutxa.net**-era jo dezakezu.

www.kutxa.net



kutxa

zure diruaren balio erantsia

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

Hasiera kaskarra denboraldiari

1-7 galdu zuen Ibarrek Logroñoren aurka Ligako lehen partidan

IÑIGO TERRADILLOS

Hasiera kaskarra eman dio Ligari Ibarra areto futbol taldeak; izan ere, larunbatean Ibarrek Belabietan kiroldegian Logroñoren aurka jokatu zuen estraineko partidan 1-7 galdu zuen. Ibarrek ez zuen batere itxura onik eman, nahasirik ibili zen eta etengabean akatsak burutu zituen, bai defentsan bai eta erasoan ere. Akats horiez baliatzea nahikoa izan zuen aurkariak partidarekin egiteko.

Horrela, bosgarren minutuan iritsi zen lehendabiziko gola errioxarren eskutik. Ibarreari balaio lapurtu ostean kontraerasoari ekin zioten, eta

etxeko defentsa galdurik zebilela probestuz sartu ahal izan zuten balaio sare barrura. Bigarren gola zazpigarren minutuan etorri zen, oraingoan ere Logroñoren eskutik; defentsan Ibarrek egin zuten huts egiteaz baliatu ziren, 0-2koa eginez.

13. minutuan Ibarrek alde murriztea lortu zuen. Landerrek bigarren zutoinera bidali zuen balaio alboko sakez, eta Loizun jubenila izan zen ondoren balaio sare barrura sartu zuena. Ibarra partidari buelta ematen saiatzen ari zen, baina azken unean ez zuen etekinik lortzen. Eta atsedendira 3 minutu geratzen zirenean errioxarrek hirugarrena egin



2005-2006 denboraldiko Ibarra areto futbol taldea. IÑIGO TERRADILLOS

zuten penalti bikoitz baten ondorioz. 1-3koarekin heldu ziren atsedendira. Bitartean, harmailtan jarraitzaileek gauzak ez zituzten batere garbi ikusten, etxeko taldearen berpiztea itxaroten ari baziren ere.

Bigarren zatian, ordea, ez zen aldaketa handiegirik eman, eta are txarragoa izan zela esan daiteke. Bosgarren minutuan errioxar aurrelari baten eskutik 1-4koa etorriko zen. Gol horrek min handia egin zion Ibarreari; une horretatik aurrera erabat nahastu zen

taldea, eta ideiak ezin zuzendu egon zen.

Partida amaitzeko 6 minutu baino geratzen ez zirenean, berriro ere Logroño taldeak, eta sake luze baten ondorioz, 1-5koa egin zuen. Kasu honetan ere, defentsan egindako huts egiteak zerikusi zuzena izan zuen gola sartzerako orduan. Etxeko taldeak zorte txarra ere izan zuela esan behar da, Sanzek aldendu zuen balaio batek Sinoe ukitu ondoren sarrerako bideari ekin baitzion. 1-6koa zen.

Baina ez zen dena hor amaituko; defentsan egindako beste huts egite batetaz ederki baliatu ziren logroñoarrak partida amaitzeko 2 minutu geratzen zirenean, eta zazpigarrena egin zuten. 1-7koarekin amaitu zen partida. Aipatzekoa da norgehiagoka hasi aurretik minutu bateko isilunea gorde zutela hil berri diren Ayerza anaien aiton-amonen omenez.

Hasiera kaskarra eman diote Ligari; taldeak lan handia egin beharko du kategoriak eskatzen duen mailara iristeko.

IBARRA ▶ GIZARTEA

2005-2006 denboraldiko lantegiak aurkeztu berri ditu Udaleko Kultura Batzordeak

Izen-ematea Benito Izagirre kultur etxean egin beharko da urriaren 7a baino lehen

IÑIGO TERRADILLOS

Ibarrek Udak aurkeztu berri du 2005-2006 denboraldian eskainiko dituen lantegien zerrenda. Udaleko Kultura Batzordeak antolatzen dituen lantegietan izena eman nahi duenak Benito Izagirre kultur etxera jo beharko du urriaren 7a baino lehen. Informazio

gehiago nahi duenak, bestalde, 943 67 03 99 eta 943 67 05 61 telefono zenbakietara hots egin dezake.

LANTEGIAK

Aretoko dantzak.

▶ Ostegunetan, 18:00etatik 20:00etara.
▶ Kurtso osoa.
▶ 126 euro.

Argazkia (hastapena).

▶ Asteartetan eta ostiraletan, 18:30etik 21:00etara.
▶ Urria-otsaila.
▶ 156,80 euro.

Argazkia (sakonketa).

▶ Asteartetan eta ostiraletan,

18:30etik 21:00etara.

▶ Martxo-ekaina.

▶ 156,80 euro.

Ehoziariak eta bainak.

▶ Asteartetan, 17:30etik 19:30era.

▶ Kurtso osoa.

▶ 126 euro.

Errestaurazioa.

▶ Astelehena eta asteazkena, 19:00etatik 21:00etara.

▶ Kurtso osoa.

▶ 156,80 euro.

Sabel dantza.

▶ Ostiraletan, 19:00etatik 21:00etara.

▶ Kurtso osoa.

▶ 126 euro.

Masaia.

▶ Ostegunetan, 18:30etik 20:30era.

▶ Ikasturte osoa.

▶ 126 euro.

Pintura.

▶ Asteartetan eta ostegunetan, 15:30etik 17:30era.

▶ Kurtso osoa.

▶ 156,80 euro.

Eskulanak.

▶ Asteazkenetan, 17:30etik 19:30era.

▶ Kurtso osoa.

▶ 126 euro.

Bitxiak egitea.

▶ Astelehena, 18:30etik 20:30era.



Ehoziariak. HITZA

▶ Kurtso osoa.

▶ 126 euro.

Egur taila.

▶ Asteartetan eta ostegunetan, 17:00etatik 19:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

▶ Ikasturte osoa.

▶ 156,80 euro.

Udaletxean lan egin!

- Administrari laguntzaileak
- Liburutegi laguntzaileak
- Telefonistak
- Laborategi laguntzaileak
- Mantenimendurako peoiak

Informazioa:
943428774

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria. Neska euskalduna behar da taberna batean lau orduz lan egiteko. Deitu 675 70 11 78 zenbakira.

Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria eta kamarera behar da. Interesatuak deitu 943 69 19 33 telefono zenbakira.

SALGAI

Egurra. Su egur lehorra salgai. Pagoa eta haritza. Interesatuak deitu 615 75 57 62 telefono zenbakira (arratsaldetan).

Banatzailer bat
behar da baserriar produktuak banatzeko

Lurlan baserriar elkartera
943 69 20 54

LEITZA ▶ PILOTA



Saridunak (ezkerretik hasita): helduetan, Mikel Olazabal aresoarrak (ezkerrean) irabazi zuen txapelketa; kadeteetan, azpitxapeldun gelditu zen Xabier Alustiza aresoarra (eskuinean); eta benjaminetan, Mikel Sagastibeltza leitzarra ere (ezkerrean) azpitxapeldun gelditu zen. J. ASTIBIA

Olazabalek eta Iruretak jantzi dute Leitzako I. Pilota Txapelketako txapela

Helduetan ez ezik, beste bost mailetako finalak ere jokatu dira asteburuan, Amazabaleko harmailak pilotazalez mukurua direla; eskolakoak «gustura» dira

JAIONE ASTIBIA

Igandean eman zioten bukaera Leitzako I. Eskuz Binakako Pilota Txapelketari, harmailak pilotazalez beteta agertu zen Amazabal pilotalekuan bertan, sei mailetako finalak jokatu; eta, besteak beste, gorenekoan, helduen kategorian, alegia, «etxekoek» irabazi zuten txapelketako saririk garrantzitsuenak: Mikel Olazabal aresoarrak eta Iruretak 22 eta 10eko-arekin irabazi zieten finala Renobales eta Tabarri eta txapeldun bihurtu ziren. Aurten goan, urdinez jokatu badute, hurrengo edizioan gorritz aritzeko moduan dira, beraz.

Saria, merezitakoa erabat. Izan ere, partidu hasiera-hasiertatik nabarmen gailendu ziren

Olazabal eta Irureta. Atzeko koadroetan Iruretak ederki eutsi zion Tabarri, seguru, hutsik egin gabe, bi atzelarien arteko borrokan, parez-pare ibili ziren gehiengan. Aldea, ordea, aurreko koadroetan egon zen: Renobalesek huts dezente egin zituen, tantoa bukatzerakoan txapera hainbat pilota joan zitzaizkiolarik. Halaxe adierazi zion Hirzari alegiarrak: «Ez nuen pilota gozatzen, eta ez zitzaidan ezer ateratzen, ez nuen asmatzen. Nekatuta ere etorri naiz, atzo beste partidu bat izan nuen eta, baina ez naiz ondo aritu», zioen pilotari gazteak. Txapelketan zehar «oso gustura» aritu dela adierazi zuen, eta bere lagunaren, Tabarri, lana goraiatu zuen, «baina gaur ezin izan dugu:

gaur alde handi samarra izan da», aitortu zuen, amaieran.

Gozatu zuena Olazabal izan zen. Partiduko tanto ikusgarriak berak egindakoak izan ziren, zabalera indartsu botatuko zenbait esate baterako, eta baita jendearen txalo gehien jaso zuen tantora zihoan hutsa ere: ordurako 17 eta 5 irabazten ari zirela, tantoa bukatzeko asmotan pilota ezkerreko txokoan utzi zuen poliki-poliki; Ugaitz aillatu, ordea, eta erantzuna, berriz ere eskuetara joan zitzaion, arerioa zabalera joana zela ikusita, erdi-erdian dejada egiten hasi eta txapera joan zitzaion. Partidua bukatutakoan «oso gustura» zegoen mutilla egindako lanarekin. Aitortu zuenez, bertako jendetza ikusita hasieran ur-

duri bazegoen ere, «atzean laguna seguru aritu da, eta gure pilota ere gehixeago ibiltzen zen, eta jokaldiak ongi atera zaizkigu, aurrenetik abantaila hartuz», argitu zuen. Etxean irabazi egin nahi zuen eta halaxe egin zuen.

Jaialdiko azken partiduan bezalaxe, ordea, aurreko guztietan ere pilotariak fin aritu ziren lanean. Benjaminetatik hasi eta gazteetaraino, bost final ikusgarri jokatu zituzten batzuk zein besteek, bertan bildu ziren pilotazaleen gozagarri. Maila guztietan pilotariak fin aritu ziren, horren isla markagailuen azken emaitzak: nahiz 18ra, nahiz 22ra jokatu, azken emaitzak oso parekatuta koak izan ziren. Ikusleak pilota ikusteko gogoz joanak ziren

EMAITZAK ▶

Txapeldunak eta azpitxapeldunak erabakita geratu ziren:

Benjaminak. Untxalo-Aizpuru 18 / Sagastibeltza-Garaio 07.
Alebinak. Ijurre-Larraia 18 / Etxeberria-Beraza 15.
Infantilak. Ansotegi-Aizpuru 18 / Madariaga-Lana 13.
Kadeteak. Iturrioz-Madariaga 22 / Alustiza-Leunda 11.
Gazteak. Urrutia-Mitxelena 22 / Andreu-Larrinaga 14.
Helduak. Olazabal-Irureta 22 / Renobales-Tabar 10.

eta gozatu ederra hartu zuten. Giro polita eta beroa izan zen igande eguerdikoa.

Aipatu beharrekoak dira bertako eskolakoak hiru aritu zirela lanean, Mikel Olazabal barne: kadeteetan, Xabier Alustiza aresoarra, Leundarekin, azpitxapeldun gelditu zena; eta benjaminetan, Mikel Sagastibeltza leitzarra, Garaioekin, hau ere azpitxapeldun.

Pilota jokoak bukatuta, pilotan ez baino sariak banatzeko lan gozoan aritu ziren, besteak beste, Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxea pilotariak.

Txapelketaren antolatzaileak. Aurrera pilota eskolakoak, «oso baikor» zeuden, pilotan «oso maila ona» ikusi delako, «txapelketa guztian bezala, finalaketa saioetan ere», eta «batez ere gaur pilotalekua jendez bete delako», baieztatu zuten. Antolaketari dagokionez ere oso gustura ageri ziren: «Gurasoek zoriondu egin gaituzte, eta federaziotik bertatik ere bai». Ondorioz, hurrengo urteari begira «jarraitzeko gogo guztiak ditugu», zioten: «Gurasoek gure umeak pilotan aritzea lagundu behar dugu eta, are gehiago, horrela, Euskal Herriko herri guztietakoak nahaste elkarrekin aritzea», arrazoituz. Bestalde, «txapelketa honen laguntzaile izan diren Goiko enpresa, Euskadiko Kutxa eta Nafarroako Pilota Federazioa» eskertu nahi izan zituzten.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
 etxetara

ESKELAK
 19:00ak arte hartzen dira
 Telf.: 943 65 56 95
 tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko irailaren 28a, asteazkena ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

20

hotzena

16

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidetan egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Amezketak. Musika Eskolako matrikulazio epea zabalik. Pianoa, panderoa, trikitixa, musika, tailerra, saxofoia eta gitarra dira aukeran. Izena eman nahi duenak gaur du azken eguna, Musika Batzordeko Agurtzaneri deituta (690 34 90 09).
Anoeta. *Sexualitatea adineko pertsonengan* hitzaldia, Ana Atienzaren eskutik. 18:30ean, Biltokian. Ondoren, meriendaboa.

JAIKAIK

Irura. 19:00etan, kalejira Loatzo Musika Eskolako bandarekin eta buruhandi eta erraldoekin; 19:30ean, Kulturunearen inaugurazioa; 21:00etan, zikro-jatea plazan; afalostean, Berriketan taldea. Larunbateko ezkontuen bazkarirako izen-ematea Aizpurua jatetxean eta liburutegian egin behar da, bihar arte. Haurtzaindegi zerbitzua (2-10 urte bitartekoak) eskatu nahi duenarentzat ere bihar da izena emateko azken eguna.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Tolosa. Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7, 943 67 06 48.
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36, 112.

IRRATIA

Txolarre (107,5; 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko Ahotsa.*
12:45. *Zortziko aldrebesa.*
13:00. *Izkutuko koloreak* irrati nobela.
13:15. *Lehiaketa* eta disko eskainiak.
21:00-22:00. Saio berezia: *Joxe Mari Aranalde gogoan.*
22:00-23:00. *Elektro gaua.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

«Euskara? Beharrezko delako»

TOLOSA ▶ Irazki elkarte kulturantzaren eskutik, euskaraz hitz egiten ikasten hasi dira herrian bizi diren kanpotik etorritako hainbat lagun



Ikasturte honetako haurren euskara eskolak (goiko argazkian) zein helduenak joan den larunbatean hasi ziren. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Txina, Portugal, Venezuelak, Maroko, Peru, Guinea, Ukraina, Ekuador, Galizia... Mundu zabaleko herrialde horietatik guztietatik etorri ziren, eta Tolosan bizitzen jarri. Eta, gehixeago edo gutxiexago, euskara ikasteko beharra sentitu dute guztiek. Horretantxe hasi ziren larunbatean, Irazki elkarte kulturantzaren antolatutako *Euskal Herrian murgilduz* programan parte hartuz.

Eusko Jaurilaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta, batez ere, Tolosako Udaleko Euskara departamenduak sustatzen ditu ikastaro hauek, elkarteko ordezkariak adierazi zutenek. Aurten goarekin, laugarren urtea da programa hau eginen dutena, 2002an egin zuten lehendabizikoa. «Gure elkartek batez ere bilatzen duen helburua kanpotik etortzen direnak herrian osotara txertatzea da», zioten. Eta, horretarako, besteak beste, «beharrezkoa da bertako hizkuntza ezagutzeko ez ezik, hiztun izateko ere», baieztatzen zuten: «Bertako hizkuntza euskara denez, euskara ikasteko aukera eskura jarri nahi dugu».

Sekula baino jende gehiago

Aukera honetaz baliatuz, «sekula baino jende gehiago etorri da», baieztatzen zuten Irazkielak. «Beste alditan 8-10 lagun etorri izan dira. Baina aurtentan, bai umeetan bai helduetan, ia bikoiztu egin da kopurua», azaldu zuten. Akaso, «helduen gelan batez ere», bi

talde egiteko aukera aztertuko dute; «jakintza maila oso desberdineko jendea etorri da eta».

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA ikustaldia egitera joan zen larunbatean euskarako eskolak ematen ari ziren lekura bertara, eta ikasleekin mintzatu zen, gaztetxoekin nahiz helduekin.

Batzuek urteak daramatzate hemen, bertako jendearekin harremana dute, eta lantokian nahiz lagunartean nahiz kalean, euskararen beharra nabaritu dute: «Euskal Herriko hizkuntza da euskara, nire bulegoan lankideak euskaraz aritzen dira, eta nik ere hala aritu nahi dut. Gainera, Tolosan jende gehiena halaxe aritzen da, euskaraz, eta niretzat beharrezkoa da hitz egiten ikastea», argitu zuten batek. «Euskaldunekin erlaziozaz, batez ere, ikasten dut euskara: lagun talde baten gaudenean niregatik gaztekeraz aritzerik ez dut nahi», zihoen beste batek. Gaztetxoek, berriz, batez ere hezkuntzako eskakizun modura aipatzen zuten euskaraz ikasteko ahalegina: «Eskolan hala egiten dute ikaskide guztiek, eta haiek ulertzeko behar dut», zihoen batek, besteak «beharrezkoa delako, gizarteak ikasketarako eskatzen du eta», erantzen zuten bitartean.

Guztiki, helduak nahiz gaztetxoak, ahalegin berezia egiten ari dira, oso berezia: ostiral gauean bertan iritsitako hiru gaztetxo hurrengo goizean jada euskara ikasteko eskolara joanak ziren, esate baterako. Zorionak dene!

AGURRAK ▶



Lore.
Gaur 3 urte.
Zorionak
etbako partetik.

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberririk... zoriontzeko, etorri: HITZAren egoitzetara: Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!

BOTUA EMATEKO

Posta elektronikoz: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Telefonoz: 943 65 56 95

Botuaz gain, datu pertsonalak behar ditugu.

Irabazleak, asteburuan argitaratuko dira
Argazkiak www.tolosaldeko-hitza.info webgunean ikus ditzakezu

1. SARIA: Bazkari eder bat bi lagunentzako Alkizako Ostatuan.
2. SARIA: Leitzako Arakindegia jatetxean afari eder bat bi lagunentzako.
3. SARIA: Tolosako Richard argazki-dendako 8x21 prismaoak.



argazki
hitza lehiaketa

Irailak, 30 ostirala,
botua emateko
azken eguna